

HITZ BITAN

JUGOSLAVIA

Gerra krimenaz akusaturikoak aurki estraditatzan hastea espero du Del Pontek

Carla del Ponte Jugoslavia Ohirako Zigor Auzitegiko fiskalak Belgradek Hagarekin lankidetzan aritzeko onarturiko legearen «emaitzak» aurki espero zituela esan zuen atzo Serbiako hiriburuan. Larunbata arteko epea eman die Belgradek gerra krimenaz akusaturiko 23 laguni beren buruak entrega ditzaten.

VENEZUELA

Uniforme militarra ez duela jantziko iragarri du Chavez presidentek

Joan zen astean estatu kolpe saioa jasan zuen Hugo Chavez Venezuelako presidentek aurrerantzean uniformerik ez duela jantziko iragarri zuen atzo. «Ezpata gorde dut, baina laguntza eta ulermena eskatzen dut berriaz atera behar ez izateko», esan zuen.

BURUNDI

Gutxienez 60 lagun hil dituzte errefuxiatu gune batean eginitako erasoan

Gutxienez 60 lagun hil eta dozenaka zauritu ziren atzo hutu etniako matxinoek Tanganika lakuko bazterrean dagoen errefuxiatuen kanpaleku baten aurka eginitako erasoan.

TXETXENIA. Grozniko Barne Ministeriotik 200 metrora bi mina zartatu dituzte

Gerrillariak 21 polizia hil dituzte, Putin gatazka militarra bukatua zela esatear zegoela

Erredakzioa | DONOSTIA

Errusiako presidente Vladimir Putinek Txetxeniako gatazkaren fase militarra bukatua zela berriro esan baino ordu pare bat lehenago, gerrillari txetxeniarrak mezua aldarazi zioten: lurreko bi mina zartarazi, eta 21 polizia txetxeniarrak hil zituzten Groznin. Erasoaren ondorioz, Errusiako Armadak Txetxeniako hiriburua erabat itxi zuen.

Atentatua Grozniko Barne Ministerioaren egoitza 200 metrora agitu zen, goizeko 10:00etan (Euskal Herriko 7:00etan). Ingurutik pasatzen ari zen polizia txetxeniarrak —Moskurekin leialak— betetako autobus bat harrapatu zuen mina baten leherketak. Ondorioz, 10 polizia hil ziren. Geroago, kideak laguntzera zihoazenean bigarren mina batek ez-tanda egin zuen, eta beste zazpi polizia hil eta sei zauritu zituen. Lerrook idazterako hildakoen kopurua 21ekoa zela zioten berri agentziek.

Atzoko erasoan joan den asteazkenean Txetxeniako hegoaldean eta hego-ekialdean izandako beste biren ondotik dator; horietan sei soldadu errusiar hil eta beste hamar zauritu zituzten independentziazale txetxeniarrak. Horren ildotik, Txetxeniako Fiskaltzak onartu du eraso horiei erantzunez Errusiako Ar-



NTV/AP

Telebistatik hartutako irudi hauetan gerrillariak jarritako minaren ez-tandak hildako polizia txetxeniarraren gorpuak ikus daitezke.

madaren kanoiek hiru zibil txetxeniarrak hil zituztela Gorgatxi herriaren kontrako erasoan.

Putinen mezua

Atzo gerrillari txetxeniarrak Poliziaren aurka eginitako erasoan Errusiako presidente Vladimir Putinek Nazioaren Egoeraz Moskun Parlamentuaren aitzinean eman behar zuen hitzaldiaren aurretik gertatu zen, hain justu ere, bi ordu eta erdi lehenago.

Putin, besteak beste, Txetxeniako gatazkaren fase militarra amaitutzat ematera zihoan bere

hitzaldian. Presidente errusiarren esanetan, «segurtasun indarrek gaizkile eta terroristekin bukatuko dute»; halaber, Txetxeniako arazo sozio-ekonomikoak konpontzeko eginalen garrantzia nabarmendu zuen. Berebat, Txetxeniak bere instituzio juridikoak eta segurtasun indarrak izatearen alde agertu zen Putin, baita «etorkizunean hauteskunde libreak» ospatzearen alde ere. «Txetxeniako biztanle oro Errusiako Federazioko eskubide osoko biztanle sentitu behar da», nabarmendu zuen.

ALJERIA



Poliziaren errepresioak iaz eragin 'Udaberri Beltza' gogoratu dute kabiliarrek

Erredakzioa | DONOSTIA


Kabilia eskualdeko lau probintziak ospakizun berezia egin zuten atzo; izan ere, iazko apirilean Aljeriako Poliziaren eskuetan hildako gazte bat eta ondorengo errebolta izan zituzten gogoan milaka herritarrek. Errepresio eta matxinada egun haiei Udaberri Beltza izena paratu zieten beren eskubideen alde borrokatzen diren berbereek.

Tizi Ouzoun, Kabilia eskualdeko hiriburuan hainbat ekitaldi egin zituzten atzo. Baina ospakizun nagusia Beni Doualan egin zuten, non Poliziak Massinissa Gherma gaztea hil zuen iazko apirilean, atxilotuta zeukala. Kabiliarren haserreak hainbat protesta eta errebolta eragin zituen, eta segurtasun indarren eta manifestatzaileen arteko istiluetan 60 eta 110 hildako artean eta 2.000-5.000 zauritu izan ziren, zenbait iturriren arabera.

Kabiliarrek eta beste talde berbereek hizkuntza eskubideak eta programa sozialak eskatzen dituzte.

**Inchausti Estiloa LOGELETAN**

Logela bat erosiz gero
ANOUK EDREDOI bat OPARI



- Badago gauzak egiteko beste estilo bat. Inchausti Estiloa da.
- Badago etxea bizitzeko beste era bat. Inchausti Mobiliario-ren logelak dira. Beroak, dotoreak eta oso pertsonalak.
- Egiguzu bisita. Diseinuan, prezioan behar duzun irtenbidea dugu, hala nola merkaturko eskaintzarik zabalena: Arruti, Treku, Nueva Línea, Pianca, Brigitte Forestier, Zanette, Mercantini...

**INCHAUSTI**

EN-1, Errekalde auzoa. DONOSTIA
Ternuako Arrantzaleak, 2 AMARA (ARCCOren ondoan)

Nabaritzen da estiloa

Aholkuak
Proiektuak
Instalazioak

Finantzaketa interesik
gabe: 24 hilabete